1.° URTEA

# IBAIZABAL

33n GUEIA

IGANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1902-ko Agorrilla-ren 17n | **Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean. Guei Bakocha, Chakur chiki bat.** | 1902-ko Agorrilla-ren 17 n

**IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.**
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.° derecha.

## BERMEOKO TERTZADUNAK

Ichasotik Abustuko 3.n

Artezkari jauna; Atunetan ichasoratu guiñeanean, lapich punta bat eta papel zati zaar bat sartu nituan patrikaran bada ezpadakoan, ez ichasoko jazoerak ipinteko, Bermeon nik urten ordurako jazorikoak baiño. Iru edo laugarren egunean, eztakit nik zer ateraten nengoala patrikaritik, urten eustan papelak, eta iguesi eguin eustan uretara ta... kitu.

Orraitiño, errira ta ostera dabizanetatik batek ekarri eustazan beste papel bategaz ango jazoera barri polit batzuk, eta eurokaz, nire lagunak panelian lo dagozan arte baten, zirriborro onek eguiten diardut eta... neuk dakidan eta iñok jakitea nai eneuken bidez, orra joatsuz. Iñoz baiño erregu gueiago eguiten deutsut orraztu daizula eskutitz au; gure eskuak erramua obeto erabilten dabe lapicha baiño, ta orrez ganera, iñok ikusi enaian arrapataka ibilli bearra daukat.

Nire eskutitzik zure albistariehuan ez ikusiaz Amarratza, Lebitaduna, Judaski, ta *compañeros mártires*, erdi negarrez, arterik artu eziñik ibilli eijatsuz guizajoak; batez bere Ankandi, lenengo egunetan garrazika katu bat buztanetik dinguilizka dagoanean leguez, gueroago arrantzaka asto bati bide erdian echeko askea gogora jatorkanean leguez ibilli eida.

Albista onek ekarri eustazanari esan neutsan:—¿Zer? ¿Ainbeste poztuten ditu nire eskutitzak ala?—Bai, guizona, ta balekie nor zarean guztien artean suskriziñoen bat eguingo leukee zuri erregalu on bat emoteko. —Gorde daiela eurentzat erregalu ori, ta ainbat ariñen eguin daigun eskutizchu bat, Andra Marietarako gogoa arguitu daguioen.

Lengo domekan, seguru be, Mundakan da Guernikan da billaturiko *instrumento* edo musika tresna (1) zaar zaarrakaz, Napoleonen denporakoak auza, formau dabe Amarratzkumok musikia. Joten asi zireanean, chakur guztiak iguesiari emon eieutsen urriñeko aldera, ta andichek ausi garratzakaz erakusten emoten eben euren *protesta* bizi bizia. ¡Bestelako zaratea atera eieban musika dontsuak!

Zelango musikia zan jakiteko eztago besterik esatea baiño, aguazill, *guardi-civil* eta *señorito* pillo bat (1) egon bear izan ebela bera jagoten, bestelan chistuka ta arrika laster atarako eben erritik; eta iñun erririk badago musika zalea Bermio da bat. Ibilli eizirean guero kale batzuetatik, mundu guztiak barre ta burla eguiten eutsela, ta oraiñche dator onena... ¡jazoera onen erretratu bat ez eukitea damu izateko da! Eldu zirean Bazterra derichon kale sarrerara ta anche *¡alto!* eguin eieben musikeru ta jagolak. ¡Eguin bear! Kale atako atso guztiak eiegozan balkoietan, bata ichuzkiaz, bestea sartaguiaz; au urez beteriko lapiko zaar bategaz, ori chicharro kunak eku bietan artuta, a aulki bat eskuan ebala; preparauta kalean sartuten bazirean burutik beera eurai jaurtiteko. *Señorito*-en artean norbaitek esan eieban: —*Adelante, romper la marcha.* Ezan bai, baiña *romper* ¿nok? An egon eizirean mutillok zati baten, da azkenean alde eguin eieben balkoietako atsoak chistuka ta algaraka sekulako agurra eguiten eutseela.

Itandu neutsan albista onek emon eustazan lagunari ia an etezan *Saguchua;* ezekiala ziur, baiña ezetz uste ebala. Neu be orretan nago. *Saguchua* an izan balitz, Basterra kalean triskantza ikaragarria izango zan.

Artezkari jauna, eztakit Sagu onen barririk daukazun; bada ezpadan esan bear deutsut, ondo da beti ori lango guizon bildurgarriak ezaututea. Gabancho (2) baiño chacharragoa da bera, ingueles batek eguiten daben chondorrak aiña bultu eztauko, saguak langosse mutur zorrotza ta eraguinkorraz, inguruan bizar lakaiña batzuk alde guztietarantza urteten deutsela, beguiak mantilla orratzen burua langoak, chanka meiak eta arratoe ulea: mutil zarkoa bera, ta Plazako eche barrietan sagu-zuloa daukana. Saguak echezaar zaleak izaten dira; baiña au berarizko sagua jatsu, ta eche barriak gustaten jakoz.

Erretratu au irakurrita badakit esango dozuna:—¿Ori lango zorri batek eguingo ebala triskantzea Basterra kalean? Bai, artezkari jauna, orrechek berberorrek; orra bada zelan dan eguia esakunea usterik guichien dan zulotik ateraten dabela saguak muturra.

Guizonchu onek gauza on bat dauko orraitiño; ta bera da, bere burua ezaututen dabela; orregaitik azkenengo eleziñoetan, Amarratza dinguilizka ipiñi eben eleziñoetan, Bermeotik orra Bilbora alde eguin eban, esanaz ezebala emen egon gura egun aretan, bada bere geniñua baekiala zelangoa zan, da ezeutzala emon gura bere jaioterriari egun itzalsu bat, *un día de luto,* berak ziñoan leguez. Amarratzen kontra ibilli zireanak gogoak ondo argui erabillezan *General Bun Bun* orrek *erresoluziño* ori arlu ebaseon, baita Amarratzen alde guiñeanok bere zelan edo alan poztu guiñean, bada ezeban ichiko zutunik ezer, eta gure Amarratz Casa-Camiñoak alan bere aguinte barik guelldituko zirean, nori aguindu echakeen gueratuko ta.

Bertorkiguz amabost norueste sagu ori baiño lenago; *Libera nos Domine*, errogatiban esaten dogun leguez.

Lastima andia da gu emen ichasoan egon bearra Andra Mari ingurura arte; etorten jakuzan asmoak ezin azaldu errian; telegrafo ari bagakoen barria eldu da gu arrantzale guizajoakana bere, baiña besterik ez albistea baiño... dana dala, neure asmoa emen ipinten deutsut, eta zeuk jakin eraguin gura badeutsazu nire adiskide Amarratzari, zeuk eguin ondoen derichazuna.

Bilbon ill onetan *Campo Volantin*-en olezko echechuak edo barrakak ipinten direanez, Bermeotarrak bere eguin bear guenduke bat, aterako litzaken diruaz (elitzake guichi izango) Ankandiri *monumento* bat altzetako portuan au amaitu daitenean (nozedo-noz izango da).

Barraka sarreran jarriko da len esan dotzan musikia; zaratia ederto ateraten dau, ta ganera, bakizu ba, olango ferietan zeinbat zarata andiago ta zeinbat ganora guichiago joteko, jente gueiago urreratuten da. Goialdean zapi zuri andi baten amarratz bat pintau, eta letreru andi bat ipiñi. Erderaz izan bearko dau, or be ezeidira euskera zale zaleak aguintzen dagozanak eta kapas izango litzakez euskera usaiña asmau ezkero musika ta guzti *perrera*-ra eroateko. Alan ba, letreru ori onetara ipiñi leiteke:—*El Amarralz millagroso, almasen* (1) *de trastos istóricos de la antigua y pamosa vila de Bermio.* Eta barruan kurioso kurioso ipiñiko guendukez Casa—Camiñon *lebitia*, Ankandi-ren ankantzarren *neurria*, Don Ziruelo-ren *okarana*, Eperdikareak Bermiora etorri zanean erabillen *kapela koipeztoa*, Ardao-Maisuaren *zaraqui zulatu bat*, Chacharra-ri Saanderen betondokoa emoteko erabilli eben *beruna* edo *plomoa*, ta beste onetariko *ojetoak*. Barrakan sartu ta aurre aurrean ikusteko moduan, berba baten, presidentzian, Bermioko ach-arteetan atrapa leiteken amarratzik andiena eskeguita; onen eskuman Judaskien estatua bat begui bata, eskumakua, estalduta zapi bategaz zezenketa edo korridetan zaldiak ipinten dituezan moduan, eskerreko eskuan justiziako balantza bat platillo bata goi goian de bestea be beian dabezala, eta eskumako eskuan enbudu andi bat Ardao-Maisuaren tabernatik eroanda. Amarratzaren esker-aldean *lorito*-ak eukiteko kaiola bat eta barruan *Saguchua*, letrerochu bategaz:—*Erruegase plúbico asercar mucho que no se agan, porque está errabiao.*

Atean egongo litzake ordenea zaintzen Amarratzak Bilbotik ekarri daben presa-chakurra aguazill jantzia soiñean ipiñita. Guztiz errespetaua da bera, guiñarrak langosse bizar tzarrakaz; ta ganera maketoa danez (*Cabeza de Buey* aldekoak izan bear dau) ederto aituko da orko jentiagaz.

Musikiaren ondoan mai bat ipiñiko litzake ta anche *Poquitak* eta bere alabeak salduko leuskioe jenteai «El Riojano». Mai orren alde bietan issiotuta egongo litzakez *Poquitak* eleziñoetan, Amarratzak eleziñoa irabazi eian ipiñi zituan kandela biak.

Oraintsuan emen galdu zan *lamparia* bere ondo etorriko litzake..., baiña agur eguin deutsagu *lampara* orreri, Josapateko zelaira arte.

¿Zer derichazu, artezkari jauna? Ezta makala *proyecto*-a Bilbotarrai diruak aterateko. Baiña len esan dotan leguez, berandu jakingo dabe

(1) Eztakit zelan esan, ta ori zeure kontura. —Onen onen, zeuk ipiñi dozun moduan aituko dabe

(1) Lastozko *señoritoak*, eztiñot ondo, lastozko kapeladun *señoritoen* artean Amarratzen aldekoak batzen dira pillochu bat.

(3) Jainkoak zeruan euki daiala.

(1) Tertzaduna, *almasen* baiño *exposicion* obeto litzake.

Amarratz-kumak eta amorratuko jake lenago ez jakitea, ta zorakerien bat eguingo dabe. Ustea ona da, ta aurten ezin bada, datorren urtean eguin leike.

Panelian lo dagozan nire lagunak asi dira iguituten, da beraz gordetera noia papela ta lapicha. Ondo bizi ta urrengo arte. Zeurea.

TERTZADUN BAT.

# BIDE ONEZ

**Airea: Inchauspeko alaba dendaria**

Errotatik Lizarpeko Kataliñ
astochua aurretik duela,
ezkerrera alai beguiratuaz
zerbait zaitzen baluke bezela.

—

Ezta sortu ume lirañagorik;
ezta jaio alako damikan;
ezta ere aiñ arrosa ederrik
baratzian zabaltzen danikan

—

Orducho bat sasilar bidechoan
bazeraman chit pentsamentuan,
ontan galai gazte zaitzen zegüena
jarri zaio far-antzan albuan.

—

—Dio-¿zertan ezaten nazu dala
nik dizudan naitasuna pisska,
zu bazera nere laztan eztia
eta nere biotzeko pusska?

—

Etziraden izango mingarriak
ondorengo galaien loriak,
Lizarpeko alaba panpossari
gorritzeko ala koloriak.

—

Astochua soseguan zijoan
esanaz ¡ai! bere buruari,
iriñ lakaz gañera ote naizen
beste zerbait eramaten ari.

—

Belarriak gain-bera zebiltzkien;
atzekua eskui-ezkerrera,
pensamentu illun ontan zijoan
gueldi gueldi bidean aurrera,

—

Ontan biak baratzacho batean
larbidetik zerbait apartean,
lora ssorta bat edo bi eguiten
an guelditu ziran guereizpean.

—

Ezkutuan iñork beguiz jo gabe
loraz lora maite ziradenak,
nik uste det bilduko zituztela
baratzian zeuden ederrenak

—

Baserrira burua makurtuta
nik ezdakit guertatu zan ala,
baña askok zioten astochua
bakarrikan echeratu zala.

. . . . . .

Guero andik illabete guchira
San Pedroko eliza chikian,
Kataliñ da bere senar gaiaren
biotz biak anchen batu ziran.

VICTORIANO IRAOLA.

# OITURA CHARRAK

## ORDIKERIA

*(Jarraipena)*

Maiz ikusten da sagardotegui edo ardoteguitik ateratzen guizon ordi bat zuzen ezin joan dela kalian, atzetik seguitzen diotela mutill koskorrak burla eta farra eguiñaz; batek tiratzen dio zamarratik, beste batek kentzen dio chapela eta besteak botatzen dizka arri batzuek, zeñak, buruan edo arpeguian jota, lajatzen dute zauritua edo arrazatua. (1)

Beste askotan ardotegui edo sagardoteguian bertan aserratzen da norbaitekin, zergatik nola zentzua galdua zeukan esan zituen milla zikinkeri, eta kolpe bat edo beste ematen diote, guelditzen dala bertan elbarritu edo baldatuta.

Bestietan joaten da echera, eta an andre gaisoak pagatzen du senarraren ordikeria.

Konsideratu gabetanik bere emaztea dala Jaungoikoak mundu onetan bizitzeko laguntzat emandakoa, kolpatzen du kupirik gabe abere bat balitz bezela.

Menturaz urrengo goizean lotsaturik gueldituko da andreak aipatzen badio besperako konturik, aguinduko dio ez daia gueiago ordituko eta ez diola alako trataera charrik emango baña... urrena ardoteguira joatean astutzen zaizka aguinde edo promesa oiek eta berriro orditzen da. ¿Zer bizimodu pasa lezateke familiako burua orditzen dan echian? Iñolaz ere eziñ ona.

Irabazten duen dirutik guchi emango dio emazteari, zergatik asko bear duen berak beretzako, eta baldin egunean irabazten baditu amar errial eta ematen badizka sei edo zazpi emazteari, ¿nola onek lezake pagatu echeko errenta, janariak eta soñekoak erosi, garbitasuna eguin eta erakarri echean bear diran beste milla gauza? Ezin liteke.

Egunero irakurtzen degu paperetan guizon bat ill dutela emen edo an. Eta ¿zergatik ill dute? Ari omen ziran ardotegui batean jokuan bi lagun ardoa ugari edanaz, eta edan zituztenean chopiñ batzuek aserratu ziran batek jokaera bat ondo edo gaizki eguin zuelako, eta batek aterarik guerritik labana edo pistola bat iñork eragotzitzeko (2) denborik gabe ill zuen bere laguna.

Guero ¿zer guertatzen da? Bien familientzat negarra. Bata guelditzen da bururik gabe ill dutelako eta bestea ere bai juztiziak presondegui batera bota duelako, menturaz bere bizi guztirako.

Eta ¿zer eguiten dute? Guelditzen dira premiaz betiak eta baldin persona biotz biguñeko batzuek zerbait laguntzen ez badiote, ibilliko dira beti arrastaka eta izango dira doakabeak.

Badira familiak, eta ez guchi zorigaiztoz, goizean jaiki eta beren gosaria ukartuakin eguiten dutenak.

Emakumeak edo aurrak joaten dira dendetara beren bonbillak mantalpean edo fatrikeretan dituztela eta echera biurtzen diranean, guztiak bildu eta ogui zerra banakin edontzi edo kopacho bana edaten dute.

Eta orrela gastetandik oituta dauden neskach edo mutillak ¿nola egon litezke sendoak eta indarsuak baldin guchika-guchika goizero artzen duten edari biziak kentzen badiote osasuna eta usten badizkate beren odolak pozoituak?

¿Ez litzake obea *patharretan* gastatzen duten diru orrekin esne-zopa batzuek eguitea, edo esnea garesti badago, beintzat, kazuelacho bat bete baratzuri zopa eguiñ eta jatea? Uste det onek ez liotekela gaitzik eguingo eta estiak ukartuak bañan obeto erapoztuak edo kontentatuak utziko lizkateke.

Segurkiro ezkribatua gelditzen dan au irakurri edo irakurtza entzuten duten batzuek esango dute: eta ori izkribatu duen guizon orrek, ez aldu edaririk progatzen? Bai, adiskideak; bañan jakin bear dezute ez degula ezer ezan edaria moderakiro edaten duenan kontra, baizik dongaro edaten duenan kontra, zergatik gauza bat da bear diña edatea eta beste bat neurrigabe edatea. Aberi donkituak daude errenklera abek.

Ondo dakigu lana eguiten duen guizona ezin egongo dala urarekin bakarrik, zergatik ura likurati (1) aula da. Edan litzake edariak lenago esan dan bezela din-diña, kalterik bere gorputzari ez eguiteko moduan: da esatea, badauka bere aurrean chopiñ bat ardo eta iduritzen bazaio erdia aski duela, utzi bear du beste erdia edan gabe.

Jakiña da jostún batek soñeko bat josiko badu bear dituela lendabiz artu neurriak soñekoa ondo guelditu dediñ, iñon ere izurrik gabe jabearen gorputzean; era berean guizonak edan bear ditu edariak neurtuta, ez gueiegui eta ez guchiegui, baizik bear diña, bada ez bakarrik edarian, baizikan janian eta beste edozeiñ gauzetan soberak edo gueidiak ez dituzte kalte aundiak besterik ekartzen.

Sentimendu edo atsekabe, ez chikia, nabartzen du batek esatean ordikerizko galguiro ori chit zabaldua arkitzen dala, bañan ez liteke ukatu, zergatik beguien aurrean dagon gauza da.

Ikusten ditugu egunero guizon eta emakume adinik (2) onenekoak atezate dabiltzala limosnacho bat eskatuaz Jaungoikoaren izenean. ¿Uste dezute biltzen dituzten diruakin erosten dutela zerbait janari gosea illtzeko? Ez sinistu. Errial bat edo besteren jabe eguiten diraneko sartzen dira ardotegui edo sagardotegui batean eta an egoten dira diruak aitu artean.

Oiek berak dira askotan eche batzuetatik zerbait lapurtzen dutenak guero ebatsitako gauzak saldu eta artzen duten dirua moskorkerian gastatzeko.

*(Jarraituko du)*

(1) Arrazatua, lastimado.
(2) Eragotzi, impedir.

# EUSKALDUN ERDALZALEA

**Boni ta Passi ijitoak**

I

Boni ta Passi ziran lengusuak; biak izan bat zuten, au da, Bonifazia; bañа etzerizkioten ondo, zergatik bigar edo etzi baletorkio erentzi andiren bat oietako bati, biak izen berdiña izanik, aserretzeko arriskuan zeuden, eta obe zan pake santua, eta beragatik erdibitu zuten izena, deituaz batari Boni ta besteari Passi.

II

—Aizazu Boni.

—¿Zer nai dezu, Passi?

—¿Ponponcho eguiteko biderik izango ote degu gaur?

—Bai emakumea; gauza ugari dago munduan, eta munduan dagoana mundukoena da; gu ere munduan gaude berriz ta...

—Arako ollo aiechek ere munduan daude ba.

—Bai, ta churi ura elitzake charra.

—Gorrissta urasse eztet ba uste charragoa litzekeanik.

—¿Zeiñ obeko ote degu ba?

—Biak artzea izango litzake ondoen.

—¿Eta nola arrapatu? ¿Antzueloaz, ala aguardintetan bustitako oguiarekiñ choratuaz?

—Antzueloaz karresi eguingo dute, eta echean iñor bada, aditu eguingo dute karresia.

—Nik ikusiko det echean iñor dagoan.

—Ezagutu eguingo zaituzte ordia, ijitoa zerana.

—Ez, ez; eskale juango naiz, eta erderaz itz eguingo diet, echean iñor badago; bitartean zuaz zu olloetara.

—Ondo da.

III

—Tan... tan... Aaaaaare Maria Puriiiiissima. Sin pekara kontzebira; un limosnitta por dambor de Dios este probe antziana...

—¿Nai dezu artaburu bat?

—No entender, Siñor.

—¿No entender? Euskalduna izan baintzanan, ijitoa intzanala esango niñan.

—¿Nada nada no comprender Siñor.

—¿Quieres pues uste un maizkabesa?

—¡A Siñor! No entender.

—Bueno, bueno; urdai zati bat eman, eta dijoala.

—Bueno Siñor, bueno, así... así.

—Así sí komprender ¿é? baskuenze no comprender, maizkabesa tanpoko; y urdazaiti sí? De ke tierra ser pues V?

—De Zamora.

—¡Aaaaa! Morokasta beraz. Marruekuetako guerran probatu guiñuzen puska bat aiek ere. Ez uke merezi, bañа artu zan urdai zati au eta ua Jaungoikoarekiñ.

—Baia; Dios ke pague.

—¿Baia pagatu, urdaia emanta? En piñ, baia ere gauza bearra den ta....

—¡Ai Dios mio!

—Bai; ark pagatu bearko diñ bai.

—A Dios, hasta otro dia.

—Adios, basta nunkamás.

IV

—¿Bazatoz boni?

—Banator Passi.

—¿Ezer badakatzu?

—Bai; urdai zati bat badakat.

—¿Etzaituzte ezagutu?

—¡Bai zera! Erdera garbian itz eguin diet eta.

—¿Garbi-garbian bai?

—Bai emakumea bai linfio-linfioan.

—Nik ere ba bi ollo arrapatu, saldu eta litro bat aguardinta, eta bi libra ogui neregandu ditut.

—¿Nun dituzu ba?

—Ona emen.

—Emen eztago litro aguardintarik.

—Ez; churrut bat eguiñ diot, eguia esateko.

—¿Churrut bat? Bai zurrut bat ere. Nik eguiñ bear diot, orain beste bat.

—Tori, arzazu poliki-poliki.

—¡Zuuuuuu.... rut! ¡Aaaaaa... !Ederra dago.

—Aizazu; kilometro bateko zurrutara eguinta, tantta bat ere eztirazu utsi.

—Issillik zaude lotsagabeori, zuk gueiago edan dezu ta.

—¿Ni lotsagabea?

—Bai; antziñacho galdu zenduan zuk lotsa; ondo dakit nik.

(1) Likuratia, licor.
(2) Adina, edad.

—Zuk berriz eztezu izan galtzen lanik, eztezu beñere jakiñ lotsa zer dan ta.

—¡Ai Passi, Passi: pertzak tupiari «ipur betz» esan omen zion.

—¡A Euskaldun paltso, erdaldun guezurtia!

—¡A Ollo-lapurra!

—Zuk ostuta jan dituzun olloen lumak gorputzean aterako balitzaizkitzu, etzenduke soñeko bearrik izango.

—Zuk berriz ega ere eguingo zenduke aterako balitzaizkitzu gorputzean jan dituzuen olluen lumen amarretik bat.

—¡A senarrak igues eguintakoa!

—Zu berriz senarrari igues eguiña.

—Izena ere ostua dezu zuk.

—Zuk berriz iñori kendua.

—Eztet zurekin itzik ere eguiñ nai.

—Nik guchiago zurekiñ.

—Iiii.... sso.

V

Jende askocho bildu zan Boni ta Passiren inguruan, eta an zeuden bien senarrak ere. Galdetu zuan aietako batek: ¿bersuetan ari al dira gure señorak?

—Ez, baitzik kontzientziako esamiña eguiten-erantzun zuan besteak.

—Konfesioa ere, eguiñ dute ba, eta uste det, etzaiela palta beste gauzarik azolizioa baño.

—¡Lastima! Apaiz bat balego.

—¿Zertako?

—Azolizioa emateko.

—Oientzat laingoa neronek emango diet.

Artu zuan sulla bete ur eta bota zien bi emakumeai burutik bera, «asperges» esanaz.

Bereala esan zien inguruan zeudenai.

Siñores; sakabó el puntzion. Mañana mejor.

P. M.

1902-ko Abustuaren, 8 an.

# NIZETA ATSOA

Erretratau eguin da Nizeta atsoa,
Eun da bi urte atzo iragorikoa,
Ta zelan oker daukan ta ezain agoa
Irudian urten dau bera dan langoa,
Ta berak ain ichusi urten deutsalako
Erretratu guiñaren errutzat baidauko,
Augaitik ezeutsan nai bearra saritu
Ezta erretraturik bere gura artu;
Baña besteak eutsan orduan esaten:
«Ezpadeustazu lana niri ordainduten,
Juezagana noa eta anche laster
Ikusiko da agoa badaukazun oker,
Ta alan badaukazu, lau bider gueiago
Bearko dozu emon ta ez guichiago».
Orrelan bildurtuta emon bost peseta
Eutsazan, baiña damuz bizi da Nizeta
*Izan gura dabeñik bat bere ichusi*
*Oraindiño munduan nik eztot ikusi.*

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

# EUSKEREA TA BERE ARERIOAK

II

Echekoak eta kanpokoak dira Euskerean arerioak, euskaldunak eta erdaldunak dira gure Ama on orren kaltez bear eguiten dabenak. Miraritu ta arrituteko gauzea izan bear leuke, euskalduna Euskerean arerioa dala entzuteak. Baiña ezkaituz mirarituten, ezta gutzat gauza arrigarria; zatean zatean, or da emen, asko ta asko euskaldunak Ama Euskereagaz adiskidetasunezko kate barik ikusten doguzalako. Ezkaituz mirarituten alde onetatik, baiña arritu bear guendukez gu beste alde batetik... Gaztelar batek erderean alde jokatutea gauza berezkoa da; frantziar batek berbeta frantzesan alde bear eguiteak eztauko zer ikusirik; inguelesak beste edozeiñ berbeta baiño gueiago bere errikoa gura-izatea errazoiak eskatuten daben gauza da; berba baten, bakochak bere berbetea beste danak baiño gorago bere biotzean eukitea leguezko gauzea da ta zentzunezkoa. Baiña euskaldun batek Euskereari miiña ukatutea, euskerarik eguin gura ez izatea, arrituteko gauza da ta errazoian kaltezkoa. ¡A, ene, ta zeiñbat diran euskaldun-erdalzaleak! Eztira amar, eztira oguei... gueiago ta gueiago dira Ama Euskerearen seme esker-bakoak.

Euskereari gorroto ezteutzen erdaldun guichi egonik (badagoz maite dabenak batzuk, euron artean izkuntzlari edo *filologoak* bera ondo ezagutu dabelako,) erdaldun euskalzale guichi lurbiran edo munduan izanik, besteak baiño bere guichiago, erdaldun gueienak artu gueiñkez euskerean areriotzat, eta olanche ezagututzat ichi gueiñkez eurok basterturik, arazo onetatik eurak aldendurik. Olan bada, goiazan gueldiro gueldiro, ia ezagutu al badoguz Euskerean arerio euskaldunak, erdaldunak albo batera botarik.

Iru eratara izan leiteke euskaldun bat erdalzalea, au da, Euskerean arerioa: lenengo erakoak dira euskeraz berba eguiñ baiño eguiñ ez gurago dabenak; bigarrengoak, euskera erderatsua garbia baiño gueiago aboan erabilli gura dabenak; eta irugarrenak azkenez, euskerazko gauzari al daben laguntasuna emon gura ezteutzenak. Bigarren da irugarrengo eratako erdalzaleak ezagututea urrengo guei baterako... edo birako ichiko dogu, bada gaur naiko bear emongo dausku leenengo erakoak nortzuk direan ikusteak.

Jaio ta guero umechutan larri egoten da euskalduna (beste edozeiñ leguez) berbaz ikasi-arte... gura leuke berba eguiñ ta eziñ dau... ta alango baten, ume ori mutua izateko aukeratua ezpada, ume orregana dator Euskerea, ta gozorik emoten dautso bere berbarik gozoena, ta umeak *zerutar* Ama orren laguntasunagaz, poz andiaz deituten dautso aita lurrekoari: *¡¡Ai... ta!!* Oiñdiño gueiago; ume orrek erdera ikasten badau bere, euskera beiñ ikasirik, Ama on berorren laguntasunagaz ikasten dau Cervantes-en bertetea... Ta aror: ume orrek erderea ikasi dau, ta ikasi dau Ama Euskerean laguntasunagaz. ¡Zeinbat esker eztautsoz zor Euskereari! Aiztu iako bada ume orreri bere Amak eguiñiko mezedea, ta Ama berori leenengo berbetatzat euki bearrean bigarrentzat ¿zer diñot bigarrentzat? azkenengotzat dauko ta ¡a burubakotasuna, a eskerbakotasuna! bere aboko ostatua ukatuten dautso bere leenengo irakasla izaniko Ama onari.

Gauza bigaitik ukatuten deutse miiña Euskereari euskaldun erdalzaleak; batzuk arrokeriagaitik, beste batzuk, eurari ziñiztu gura badautzasue, lotzeagaitik.

Arrokeriagaitik euskaldun askok eguiten dau erdera. Badoa baserritik ume bat Bilbo edo beste uri andi batera... Erderea ikasirik echera biurtuten bada, erakutsi gura dau, bere lagunen artean, urian arturiko *jakituria*, ta or joatzu mutilla erdera *zara zara* alderdi danetatik eguiten dabela. Erderaz lau *por supuesto* ta bost *¡no fallaba más!* esan ezkero, uste dau berak asko dakiela, ta arro dago; errikoak barriz arriturik dagoz berari beguira. Beste euskaldun batzuk eguin gura dabe erdera, jakedun edo *chaketa*-dun guichi euskeraz ikusten dabelako. Uste dabe, onek darabillen berbetea eurok aboan erabilli ezkero, badirala eurak beste, ta or joatzuz erdera-azia leku danetatik eraiten, or jausi ta emen etzun ibilliko badira bere. Mutiko-neskatochuak bere, *erregueka* jokatuko balebe leguez, zarrak erderaz jarduten ikusirik, eurak bere joko orretara jokatuten dabe batzuk.

*Lotzeagaitik* euskera eztabela eguiten esaten dabenak bere badagoz. Eta onen artean jakedunak asko, gueienak. Badagoz oguei guizon jatordu edo batzar baten, eurotan emeretzi euskaldunak izango dira, ta ¡ori miragarria! batak *euskerarik eztakielako*, erderaz jarduten dabe. Itandu ezkero ia zergaitik eguiten daben erdera... esango dautsue aziera onak edo *educaciñoak* alan aguinduten dabela, batek eztakienean besteak dakien berbeteatariko bat eta beste bat dakienean. Baiña, ez aziera onak ez amandrek galerazoten dau euskera eguiten. ¡Emeretzi guizon egongo dira euron erriko izketan jardun barik, beste batek eztakielako!... ¿Nork aguinduta? ¿Frantzesak zer eguiten dabe, erdera jakin arren bere, Espanian bertan izanagaitik bere, españatar bat alboan eurokaz eukiagaitik gora bera? ¡A, erdalzaleak, zuron *errazoe* danak akiakulak edo achakiak dira!

¡Eziñ izan beste gauzarik! Bada, danok euskeraz jakiñ arren bere, bardiñ eguiten dabe jakedun erdalzaleok, beiñ baiño sarriago. Ta *oneean* ibilliko jatzuz esaten au ta ori ta bestea euskeraan ganean; galduaz doiala, eleitekela olangorik bear ta.... ¡eztakit zer gueiago!.... baiña dana erderaz. *¡Qué poco vascuence se habla! Sería una lástima que se perdiera esa lengua....* ta olango asko.

Euskeraan zorigachak negarra emongo ezpalebe, barre asko eguiñ lei leenengo erako erdalzaleakaz. Ikusikozu bat erderaz jarduten dabela; esango dautsazu:

—¿Zergaitik eztozu euskeraz berba eguiten?

—*Amigo*, erderea au baiño bearrago dogu.

—¿Zergaitik? — itanduten badautzasu.

—Euskereak euskal-erririko baiño eztau balio.

—¿Zeu non zagoz ba, Euskal-erriian ezta, guizona?

Badagoz esaten deudienak, beiñ baiño gueiagotan, euskereagaz ezin joan leitekela urrun. Ta onetan errazoia dauke, euron euskerea baiño besterik *ezpadago*; bada eurena euskera laburra da, ta bidean ezereztuko leiteke. Baiña ¿nork eskatuten dautso *emen* dagoan euskaldunari *kanpoatan* euskeraz berba eguitea?

Ikusiko dogu datorren astean asi ta amaitu eguiten badogu bigarren erako erdalzalean ezaupidean arazoa ¡Aiñ da au arazo astuna ze...!

PAULO ZAMARRIPA TA URAGA.

# ¡KUKURRUKU!

Milla zortzireun eta ogeitamaseian
zorigaistoan sortu zan guerra naasian
chapelgorri azkarrak zeuden bein batean
Zumarraga deritzon erri politean,
abenduko goiz bat zan eta aiñ gogorra
ezik, etzan gueldítzen erortzen elurra,
Kabo zaitzalle batek, ez batere gaitzez,
baizikan zuelako griña hura berez,
azariren papera okullu batean
egoki eguin zuen eguna arguitzean,
morralean gorderik bere ustez ongui
aurkeztatu zitzaion buruzaguiari.
Pasatzean guziai onek errebista
urbiltzen zaio kabo purrielari ta
ikusten ollar baten burua zintzillik
morralari lajatu zion zirriztutik,
oju eguiten dio—¡porkeri zirzilla!
ordu asko bañan len izango aiz... illa.
—¡Nere kapitan jauna! ¡ez beza pensatu!
guisatu ta jateko detala urrapatu!
—Orduan esan zaidak zertarako dekan
—*Kukurruku eguiñaz goiz esnatu nazan!...*

# ASTEKO BERRIAK

Zarautzen Agostuaren 12.n

IBAIZABAL-en artezkari jauna.

Nere jaun eta laguna; Festa aundiak izan dira gure auzo-erri Guetarian illaren lenbiziko astean; lenengo eguin dituzte eliz pestak illaren 6.n; erri ontan izentatzen da egun au Salbadorearen izenarekin. Izanik erri au dana arrantzalea, ezta bat bakarrik itzasora irteten, eguiten dute jai osoa parrokiko patroia duten bezela. Esan diratenez 10.tan izan zan meza nagusi ederra sermoia eguiñik Aita Barinaga prailleak; arratzaldean eguin dituzte aurreskuak eta beste pesta asko, ortarako eramaten zutela Zarauzko musika. Urrengo bi egunetan ere izan dira estropadak, kukañak eta demak edo idi-probak; azkenengo oiek biribillatu omen zizun jenderik gueiena. Eztet mirari arkitzen zergatik badira

gaur gure baserritarren artean jai edo igande egunean laña eguingo badute ere ezdute utsik̃o ez merkatu bat ez ere ganadu dema edo proba bat; gaitzerdi izango litzake Elizak aguindutako egun aietan mezacho bat entzungo ba'ute; neronek dakit badirala ez asko baiña bai bakar batzuek arreta guchi dutenak meza kontu orretan.

Illaren 8.ⁿ eguin omendira bi dema edo proba, biak irabazi omen ditu Pelayo Manterolak, nonbait Salbadorea zeukan bere alde. Esan zidaten oju eta deadar aundiak eguin zituala Pelayok dema oietan; sinisten det zergatik gaur dira lau egun ori izan zala eta oraindik dago chit marrantatua, ¡kontu Pelayo kontu! korputz ederra dezu eta obeagorik eztezu.

Orain egun batzuek Orio-ko errian guertatu da ezbear bat; *automovil* batek jo zuen emakuma bat eta bota zuen bere gañera mirariz bezela. An zijoazen jaunak beriala jaso zuten eta sendalariak billatu ere bai; emakuma bere oñez joan omenzan echera sendatu ondorean. *Automovil* nagusiak eman omen dizka 25 peseta esanik gueroago ere izango dala beguiratua.

Lengo goiz batean nengoan sarritan egoten naizen bezela plazara tratuakin zetozten jendeari beguira ta arkitzen nitzan arriturik ikustean Iñurritzako jendea zetorrela beren otarrak menda-belarrez beterik, eta ala dio gure aguazillak ¿zer jendeak, zelai danak menda jarri aldituzute? ondo beldur zerate gu arkakusu bat itotzeko; beguiratu ona jarri zion orduan nik dakidan batek, baiña guk farra eguin guenduen.

Zumaiako *Pepita* deitzen zaion fabrika bere kontura artu du emengo *La Industrial* deitzaion fabrikako nagusi Don Pedro Perez Oteguik; orain ari da lanean bi fabrikakiñ. Zumaiakoan kargudun jarri omendu bere seme Don José.

Orfeoia ari da ensaiuak eguiten; aditzen duten jendeak gora aun diak eguiten dituzte; Andre Maria gabean kantatu bear omendu.

Lengo astean jende asko etorri da. Iru milla anima igaroak egongo dira. Egun abetan abiatu dira etortzen goierriko jendea, zenbat aldiz aditu bearko degu *almorzau*, *tio* ta *tia* ta erderaz nastutako izketa franko. Guezurra dirudi beñere erdaldunik izan gabeko erri oietan ere orrela itz eguitea; an dator Madrill aldera eta beste erdal erritara joaten diran iñude ta neskameagandik; urte bat edo beste an egon ezkero, Salomonek berak baiño gueiago dakitela uste dute. Oroituko balira zer izketa garbia dan euskerazko izkuntza ziurnago ez luketela erdararekin orain-daño bezela nastuko.

Erriko zizak lengo illean eman dute 5231 peseta 48 zentimorekin.

Agur eta urrengo astera arte Jainkoak nai badu. J. E.

---

Bizkaiko ta Guipuzkoako Ekauta edo Diputaziñoak erabagui dabe Machichako derichon lur-muturrean ereguitea Eguraldi-oartokia (1) ta onen artezkaria izan daitela Juan Miguel Orkolaga abade jauna. Ekauta biak erdi bana, urtean 5.000 pesetako saria emongo deutse artezkariari.

Zorionak abade jaunari ta ichasoan lanean ibilli oi direan guizonai, zeintzuek guztiz ondo artu eidabe Ekauta bien erabagui ontsu ori.

---

Lengo astelenean eijoan Iorreta derichon erriko bidetik berez ibilliten direanetariko burdi bat (2), eta aguertu zan astotzar bat, eta etza zan luze luze bide erdian burdiaren aurrean, au elduten zan eguin eguiñean. Alkar joteran asto leloak zauri aztunak atera zituan, eta burdian joiazanak izutaldi galanta.

(1) Oartokia da *observatorio*-a, oarrak edo *observacio*-ak eguiten direan tokia.

(1) *Automovil*-ek euskeraz eztauko izenik, gauza barria da euskaldunentzat eta.

¿Zek tizi eteeban asto ori, bere buruaren kontra orrelango *astakeria* eguiteko besteraiño?

---

Martitzen arratzaldeko ordu bi ta erdietan jarri eben Bilboko ichas-kai edo portuan, Sartaldeko mutur edo adarrean, azkenengo *block* edo zatia. Kai orren asmatzaille ta eguillea, Churruka jauna, ta Bilboko kai-eguintzetako Batzarraren bigarren buruzaguia, Coste ta Vildosola jauna, ta beste jaun prestu batzuk egon zirean ikusten zelan jarten eben zati ori.

Zorionak Churruka jaunari ta kai-eguintzetako Batzarrari, amaierara ekarri dabeelako kai ori lango eguintza eder, aundi ta neketsua.

---

San Iñazio eguneko gabean, diñoskuenez, azaldu eben Lekeitioko uri polit euskerazalean, bertako seme argui Azkue jaunak eguindako jostirudia «*Pasa de Chimbos*» izena daroana. Lekeitioko orfeoikoak azaldu eben, da ezin esandakoa izan eizan ango jenteak, batez be, nekezaleak euki eben poza.

Azaldariak izan eizirean:

Almasen . . . Urriolabeitia
Pirri. . . . . Gabika-Echebarria
Guilmant . . . Valdes y Coikoechea
Seremonia . . Amias
Maestro de Lariz . . . Bracho
Tabernero . . Ziarreta
Alcalde . . . . Zabaleta

Ondorean Orfeoiak erezi edo kantau eban «Arbola bat» derichon zortzikoa Letamendia ta Arrese-na, ta guero «Guernikako arbola.»

¡Aurrera Lekeitioko gasteak, orretariko janarien gose da gure Euskalerri baztertua! Eztaitela izan anaia bakarra, gau orretan eguin zenduen jaialdi ederra.

## IZKIRIMIRIAK

Barko bateko mariñelak, bertako apaizari eguin zion ichas zabalean desobedientzi bat; eta jakindurik ontzi artako kapitanak; esan zion:

—Desobedientzi orrengatik, arrestatzen zaitut lau egunetako. ¿Ez dakizu zuk, sacerdoteak dirala Jainkoaren aurkeztariak lurrean?

Eta mariñelak buruari atz eguiñaz erantzun zion:

—Kapitan jauna; badakit lurrean ala diradela, bañan barkatu bear dit, ez nuen uste urean ala ziradenik.

R. ILLARRAMENDI.

---

Anton Kaiku ill aguiñean dago, ta berari lagunduten dabillen abadeak eskatu deutso aren emazteari Santo Kristo bat; eztaukala Santo-Kristorik echean erantzun dau. Orduan abadeak aguindu deutso ekarteko kurutziaren taiua daukan gauzaren bat. Emazteak ichoroski bati kendu deutso esku aldeko taketa, ta beste taketaz ta erdiko luzeagaz aor kurutzea eguinda. Artu dau abadeak berau ta asi jako esaten Antoni:

—¡Anton! beguiratuizu.... ¿badakizu zeiñ egon dan emen? Eta Antonek:

—Bai jauna; or matasia egon da.

## IGARKIZUNAK

*Bat bat bat* izaten da
eurien kontuan,
*Bi bi bi* soñu jotzen
edo ta kantuan;
dena ichaspean da
jateko ona nozki,
maiz eguiten dana da
ichi ta iriki
mutillak beatzakin
biltzen dute aski,
orain jango nituke
pozik amazazpi.

PEPE ARTOLA

II

| | |
|---|---|
| NN<br>NN | R Dia Dia |

Lengo astekoen epaiak: lenengoa, *Zuloa bigarrena*, *Bide erdian gaizoña astuaren gañean.*

LA EDITORIAL VIZCAINA derichon moldaguintzan
Gran Vía, 26 eta Ledesma, 15.


# IBAIZABAL

BIZKAITARREZ ETA GUIPUZKOARREZ EGUIÑA

Euskalerrian . . . . . 3 peseta urtean
Erdalerrian . . . . . 6 » »

Guei edo numero bakocha chakur chiki bat
Astean Asteangoa da, ta igandeetan edo domeketan urteten dau

Suskriziño lekua: Bilbon, Dendari kalean (calle de la Tendería), 19

JAUN JOSÉ ASTUY-RENEAN

Redakziñoa: Bilbon, Tiboli, letra B, 2.° derecha

## Iragarriak

1.° orrialdean . . . . . peseta 1 lerroa
3.ⁿ » . . . . . » 0,20 »
4.ⁿ » . . . . . » 0,15 »

Beste klaseetako iragarriak itundu edo conbenidu bearrekoak izango dira
Aurretik pagau bear dira, bai suskriziñoak eta bai iragarriak